

MINTZAMENA



Ekintza komunikatiboa: Lagunartean eta aurrez aurre, pertsonen, lekuen, paisaien eta eguraldiaren deskribapen xume eta objektiboak egitea, oinarritzko konparazio sinple batzuk eginez.

Norwegian bizi naiz

- Ainara:** Kaixo, Patxi. Aspaldiko!
- Patxi:** Aupa, Ainara. Oporretan etorri naiz. Orain, Norwegian bizi naiz.
- Ainara:** A, bai! Ez nekien. Zer moduz klima han? Gogorra, ezta?
- Patxi:** Bueno, hegoaldean ez da hain gogorra; nahiko normala da zeropeko 18 gradu, baina iparrean gogorragoa da; han nahiko normala da zeroetik 40 gradu izatea.
- Ainara:** Eta zer arropa erabiltzen duzue?
- Patxi:** Neguan artilea asko erabiltzen da. Galtzontzilo luzeak eta alkandora edo kamiseta bat mahuka luzekoa denek eramaten dute.
- Ainara:** Galtzontzilo luzeak! Entzutearekin bakarrik hotza sartzen zait. Zerbait beroa hartuko al dugu? Kafetxo bat edo?
- Patxi:** Konforme!
- Ainara:** Kafetegi hau berria da. Ikusten duzun bezala, oso toki goxoa.
- Patxi:** Gaez ere irekita egoten al da?
- Ainara:** Bai. Gaez kopak ematen dituzte eta jende asko etortzen da. Oso giro ona egoten da. Eta, Norwegian, giro ona egoten al da kalean?
- Patxi:** Bueno, han ez da hemen bezala; han etxean egiten da festa.
- Ainara:** Asko edaten dute?
- Patxi:** Gehiegi, edaten dutenean.
- Ainara:** Guk baino gehiago?
- Patxi:** Bai. Haiek edaten hasi, eta ez dute pentsatzen " tira, nahikoa dut". Normalean, edan eta edan jarraitzen dute.
- Ainara:** Eta jendea, bestela, nolakoa da? Hotza, eguraldia bezalakoa?
- Patxi:** Ez. Nik pentsatzen nuen jende serioa zela, umore gutxikoa, baina ez, ez da horrela. Oso jende irekia da eta umore handikoa.
- Ainara:** A, ba, agian, laster egingo dizut bisitaren bat.
- Patxi:** Nahi duzunean.